BUSTURIALDEKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOA, SOZIALA ETA HEZKUNTZAKOA ETA GIZARTE PREBENTZIORAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea esku-hartze psikologikoa, soziala eta hezkuntzakoa eta gizarte prebentzioa gauzatzea da Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Haurtzaroa eta Familia Arloan.
Zerbitzu horrek:

- Umeen eta nerabeen ongizatean eragingo duten baliabideak sustatzeko jarduerak gauzatuko ditu, arazo psikologikoak eta sozialak prebenitzea erraztuz eta horien garapen pertsonala eta soziala optimizatuz.
- Esku-hartze psikologikoa, soziala eta hezkuntzakoa eta gizarte prebentzioa gauzatuko du Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Haurtzaroa eta Familia Arloan.
- Umeen eta nerabeen arrisku eta babesgabetasun egoerak baloratzeko lantaldean parte hartuko du.

2.- ARAU-ESPARRUA

Honako arau hauek aplikatuko dira, edo honako hauek ordezten edo garatzen eta osatzen dituztenak:

- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea.
- Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea.
- 152/2017 DEKRETUA, maiatzaren 9koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan (BALORA) arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna baloratzeko tresnaren eguneratzea onartzen duena.
- Indarkeriaren aurrean Haur eta nerabeen babes integralari buruzko 8/2021 Lege Organikoa (LOPIVI)
- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea Euskal Autonomia Erkidegoko adikzioak arautzen dituen lege-testua da.

3.- ZERBITZUAREN HELBURUAK

3.1.- ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOA, SOZIALA ETA HEZKUNTZAKOA

- Umeen, nerabeen eta beraien familien ongizatea sustatzea horien garapena eta trebakuntza erraztuz banaka eta familian, modu egokian gizarteratzeko.
- Familia sustatzea, laguntzazko, orientazioko eta aholkularitzako neurri psikologikoen, sozialen eta hezkuntzakoen bidez , apurka-apurka heldutasunera heltzeko, neurri handiagoan gizarteratzeko eta bizi-kalitatea hobetzea lortzeko.
- Adingabekoei eragin ahal dieten arrisku eragileei aurrea hartzea, egokitu ezinezko jokabideak edo babesgabetasun edo abandonu egoerak sorrarazi ahal dituztelako.
- Oinarrizko gabeziak dituzten umeei eta nerabeei laguntzea, gabezia pertsonalak, familiakoak, hezkuntzakoak, afektiboak eta antzekoak dituztenei ekintza psikologikoa, soziala eta hezkuntzakoa gauzatuz.
- Umeen eta nerabeen gizarteratzea sustatzeko ekintzak garatzea, banaka edo taldean komunitateko jarduerak eta baliabideak eskuratzea erraztuz.

3.2.- PREBENTZIO KOMUNITARIOA

3.2.1.- Familia ingurua

- Ume guztiek duten zaintza, estimulazio, gainbegiratze, orientazio eta maitatua izateko behar guztiei erantzuteko gaitasunak sendotzeko eta hobetzeko laguntza ematea familiei.
- Umeen ongizatea hobetzea umeek beraien familian garapen osasuntsua eta normalizatua izan dezaten sustatuz.
- Gurasoen hezkuntza lana sustatzea eta horri laguntzea, guraso trebetasunak bultzatuz eta gaitasun pertsonalak eta familiako kide guztietan modu positiboan eragingo duten baliabideak garatuz.
- Gurasoek beraien seme-alaben garapen etapei buruz duten ezagutza gehitzea, seme-alaben beharrak zuzentasunez identifikatzen ikasteko eta horiei erantzun egokia ematen ikasteko.
- Familiak arazoak eraginkortasunez konpontzeko eta estresa sortzen duten egoerak kudeatzeko duen gaitasuna sendotzea.
- Seme-alabekiko harremanetarako, hezkuntzako eta umeen hazkuntzarako trebetasunak gehitzeko baliabideak sustatzea.

3.2.2.- Familia ingurua

- Irakasleei laguntzea osasun hezkuntzako programak eta ikasgeletan jokaera arriskutsuak saihesteko programak ezartzeko eta garatzeko.
- Irakasleei baliabideak ematea kasuak berrikusteko eta jarraitzeko baterako esku-hartzeen bitartez.
- Irakasleei espazioak ematea zailtasunak erakusteko eta irtenbideak bilatzeko kezka gehien sortzen dituzten ikasleen inguruan, eta esku-hartze espezifikoagoa behar dutenen inguruan, jorratzeko zailtasunak sortzen baitira.

3.2.3.- Gizarte ingurua

- Herritarrei informazio objektiboa ematea droga menpekotasunen fenomenoaren inguruan, sentsibilizazioa gehituz eta gizarteak eskaria murrizteko helburua duten prozesuetan parte hartzea sustatuz.

4- HARTZAILEAK

4.1.- ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOA, SOZIALA ETA HEZKUNTZAKOA

- Arrisku sozialari, moldegabeziari edo haurren babesgabetasun arin edo neurritsuari lotutako egoeran dauden haur eta gazteen (0 eta 18 urte bitarteko bizilagunak) egoera hori esku-hartze psikologikoarekin, sozialarekin eta hezkuntzakoarekin hobetzea.
- Adingabekoak edo nerabeak ardurapean dituzten familiak, baldin eta krisian edo desegituratuta badaude, edo gurasoek gaitasunik ez badute, hori guztia laguntza psikologikoarekin, sozialarekin eta hezkuntzakoarekin hobetu daitekeelarik.
- Hauek ere badira programaren hartzaileak:
- Arazorik izan ez arren, familiaren, taldearen edo komunitatearen ezaugarriak direla-eta arazoak izan ditzaketen adingabeak eta familiak.
- Dauzkaten ezaugarri zehatzengatik gizarte arriskuan egoteko egoeran dauden adingabeak eta familiak.
- Krisia sortu duen gertakari bat bizi izandako familiak.

4.2.- GIZARTE PREBENTZIOA

4.2.1.- Familia ingurua

- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan bizi diren eta umeak eta nerabeak dituzten familiak.

4.2.2.- Familia ingurua

- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Prestakuntza Zikloetako, Lanbide Hastapenerako eta HKPP-ko ikasleak.
- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Prestakuntza Zikloetako, Lanbide Hastapenerako eta HKPP-ko irakasleak.

4.2.3.- Gizarte ingurua

- Biztanleak, orokorrean, edo antolatutako talde edo kolektiboak (elkarteak...).

5.- METODOLOGIA

5.1.- Profesionalaren esleipena eta esku-hartzearen hasiera.

a) Banakako/familiako edo adingabeen taldeko esku-hartzeei dagokienez:

Haur eta Familien Arloko Balorazio Batzordean familia-egoeraren balorazioa egin ondoren, zerbitzuak erabakitzen duen profesionalarengana bideratuko dira. Batzorde horretan balorazioa egin ondoren, Gizarte eta Hezkuntzako eta Psikosozialeko Esku Hartze Zerbitzuko profesional bat izendatu beharko da, epe honetan:

- Ohiko kasuak: astebete.
- Lehentasunezkotzat jotzen diren kasuak: 2 egun baliodun.
- Premiazko kasuak: 24 ordu deribazioa egiten denetik.

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo sozialean esku hartzeko zerbitzuko profesionala izendatu ondoren, honako epe honetan hasiko da esku-hartzea:

- Ohiko kasuak: 2 aste deribaziotik.
- Lehentasunezkotzat jotzen diren kasuak: aste 1 deribaziotik.
- Premiazkotzat jotzen diren kasuak: 24 ordu deribazioa gertatzen denetik.

b) Eskola-eremuko prebentzio komunitarioko esku-hartzeei dagokienez:
Haurren eta Familien Arloarekin koordinatuta, prebentzio komunitarioko zerbitzua ikastetxeekin harremanetan jarriko da ikasturtearen hasieran, jardueren katalogoa aurkezteko, ikastetxe bakoitzak zein programari atxikitzea erabakitzen duen adierazteko eta jarduerak zer egutegitan egingo diren zehazteko.
Komunitate arloko gainerako programei dagokienez, Haurren eta Familien Arloko koordinazio-saioetan zehaztuko da programa horien egutegia eta abian jartzea

5.2.- PROGRAMAK: esku-hartzearen garapena eta edukiak
5.2.1.- Esku-hartze psikologikoa, soziala eta hezkuntzakoa: Honako jarduketa programetan oinarrituz egituratzen da.
- Haurtzaroa eta familia Arloa koordinatzeko eta baloratzeko programa.
- Adingabekoekin eta familiekin banaka eta taldeka esku-hartze soziala eta hezkuntzakoa egiteko programa.
- Laguntza psikologikorako eta sozialerako programa.
- Gizartean esku hartzeko programa

5.2.2. Gizarte prebentzioa:
- Prebentzio unibertsala: Umeen eta nerabeen ongizatean eragingo duten baliabideak sustatzeko jarduerak gauzatzea, arazo psikologikoak eta sozialak prebenitzea erraztuz eta horien garapen pertsonala eta soziala optimizatuz.
- Nerabeei eta familiei zuzendutako prebentzioa: Nerabeen zailtasun bereziko egoerei erantzuna ematea, baita familiak prozesuan laguntza emateko duen beharrari erantzuna ematea ere.

6.- ZERBITZUAREN BALDINTZAK

6.1.- Egutegia eta ordutegia
Zerbitzua urteko hilabete guztietan emango da, astelehenetik ostiralera, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen egutegian jaieguntzat jotzen direnak izan ezik, egutegi horretara egokitu beharko baita.

Zerbitzua goizez eta arratsaldez emango da, egunean zortzi orduz gutxienez.

6.2.- Lantalde teknikoa eta lanbide profilak

6.2.1.- Haurtzaroa eta familia arloa koordinatzeko eta baloratzeko programa eta adingabekoekin eta familiekin banaka eta taldeka esku-hartze soziala eta hezkuntzakoa egiteko programa garatzeko eta egikaritzeko.

Enpresa lizitatzailearen lantaldeko kideek gizarte hezitzaileen titulazio espezifikoa izan beharko dute (Graduko unibertsitate titulua eta Gizarte Hezkuntzako diplomatura, edo hala badagokio, Euskadiko Hezitzaileen Elkargo Ofizialak emandako homologazio ziurtagiria).

Programa horiek profesionalen lantalde batek garatu ahal izango ditu, laneko eremu horietan duten gaitasuna eta esperientzia egiaztatu ondoren.

Erakunde adjudikaziodunak profesional bezala izendatuko ditu 3 pertsona; horietako bik lanaldi osoa izango dute urteko 1.592 ordurekin, eta batek lanaldi erdia, urteko 796 ordurekin, eta honako gutxienekoak ere egongo dira era berean:

1. Teknikari bat (1) Gizarte Hezkuntzako gradua edo diplomatura duena, lanaldi osoan, eta funtzio hauek beteko dituena:
   - Pertsonalizatutako hezkuntza esku-hartzea.
   - Esku-hartze psikologikoa, soziala eta hezkuntzakoa egiteko lantaldea koordinatzea.
   - Haurtzaroa eta familia Arloa koordinatzeko eta antolatzeko funtzio espezifikoak.
   - Umeen eta nerabeen arrisku eta babesgabetasun egoerak baloratzea.
2. Teknikari bat (1) Gizarte Hezkuntzako gradua edo diplomatura duena, lanaldi osoan, eta funtzio hauek beteko dituena:
   - Familiekin, umeekin eta nerabeekin hezkuntzako esku-hartze pertsonalizatua egitea familia unitateetan.
   - Komunitateko esku-hartzea.
3. Teknikari bat (1) Gizarte Hezkuntzako gradua edo diplomatura duena, lanaldi erdian, eta funtzio hauek beteko dituena:
   - Familiekin, umeekin eta nerabeekin hezkuntzako esku-hartze pertsonalizatua egitea familia unitateetan.
   - Komunitateko esku-hartzea.

6.2.2.- Laguntza psikologikorako eta sozialerako programa garatzeko eta egikaritzeko.

Proposamena egiten duen enpresak lantalde teknikoa izan beharko du, eta bertan psikologiako lizentziatura edo gradua duten profesionalak egon beharko dira.

Programa horiek profesionalen lantalde batek garatu ahal izango ditu, laneko eremu horietan duten gaitasuna eta esperientzia egiaztatu ondoren.

1. Teknikari bat (1) psikologiako gradua edo lizentziatura duena psikomotrizitateko espezializazioarekin, lanaldi erdian, eta funtzio hauek beteko dituena:
   - Psikomotrizitate programaren arduraduna izango da adingabekoekin zuzeneko esku-hartzeak egiteko.
2. Teknikari bat (1) psikologiako gradua edo lizentziatura duena, lanaldi osoan, eta funtzio hauek beteko dituena:
   - Esku hartze psikologikoa familiekin eta banakako esku hartzea.
   - Balorazioak egiteko txosten psikologikoak eta diagnostikoak egitea.
   - Haurtzaroa Arloarekin koordinatzea: Kasuak ikuskatu eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalei aholkularitza eta orientabidea eskaintzea.
   - Umeen eta nerabeen arrisku eta babesgabetasun egoerak baloratzea.
   - Arrisku egoeran dauden gurasoei eta nerabeei zuzendutako arreta.
   - Aholkularitza eta orientazio espazioak eskaintzea irakasleei, eragile sozialei eta arrisku egoera handienean dauden nerabeekin zuzeneko harremana duten gainerako profesionalei.

6.2.3.- Gizarte prebentzioko programa garatzeko eta egikaritzeko.

Teknikari bat (1) lanaldi osoan, gizarte lanean, gizarte hezkuntzan edo giza diziplinetan, psikologian, soziologian eta abarrean gradua duena, gizarte prebentzioarekin lotutako ikasketa osagarriak dituena, baita osasun hezkuntzako ikasketak ere. Honako funtzioak beteko ditu:

- Gurasoei eta familiei zuzendutako prestakuntza eta sentsibilizazio programak antolatzea eta ezartzea.
- Osasun hezkuntzako eta ikasgeletan jokaera arriskutsuak prebenitzeko hezkuntza programak antolatzea eta ezartzea.
- Droga kontsumoari eta jokaera arriskutsuei buruzko sentsibilizazio kanpainak antolatzea.

6.3.- Profil Profesionalak

- Titulazioa: Zerbitzuari atxikitako profesional guztiek Gradua edo Diplomatura izan beharko dute, ahal dela, Gizarte Hezkuntzan, edo baliokidea, edo, halakorik ezean, Gizarte Lanean, Psikologian edo Pedagogian unibertsitate-titulazioa. Arreta psikosozialeko zerbitzua ematen duen profesionalak Psikologiako goi-mailako unibertsitate-titulua edo dagokion graduko titulua izan beharko du.

  Nolanahi ere, taldeko profesionalak Bizkaiko Esku-hartze Sozialeko Hitzarmen Kolektiboko 2A mailako Talde Profesionalean sartuta egongo dira, eta, adierazi bezala, konplexutasun- eta autonomia-maila handiak eskatzen dituzten zereginez arduratuko dira.Normalean, baina ez soil-soilik, unibertsitateko prestakuntza (diplomatura edo graduak) izan ohi dute gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearekin zerikusia duten gaietan, hala nola Gizarte Hezkuntzan, Gizarte Lanean edo Gizarte Esku-hartzearen arloko erdi-mailako tituludunetan.

- Kontratuaren esku jartzen diren pertsonen esperientzia profesionala: gutxienez bi urte, arrisku-egoeran dauden haur, gazte eta familientzako prometan eta gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko teknikak aplikatzen.

Enpresa lizitatzaileak egiaztatu egin beharko du langile guztiek EAEko bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko gaitasuna dutela.

7.- LURRALDE EREMUA

Kontratuaren xedea aplikatzeko lurralde eremua Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten udalerriek osatutakoa izango da.

8.- ZERBITZUAREN PRESTAZIOA ETA LOKALAK

Zerbitzuaren prestazioa enpresa adjudikaziodunak gauzatuko du, Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik bideratutako pertsonei arreta emanez.

Esku-hartzea nagusiki adingabeen eta familien etxeetan edo hurbileko inguruan gauzatuko da.

Erakunde adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu garraioaren eta joan-etorrien gastu guztiak.

Gizarte prebentzioko programen kasuan, esku-hartzea ikastetxeetan egingo da, gizarteko eta komunitateko eragileekin eta elkarteekin batera lan egingo delarik.
Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak lantalde teknikoarentzat eskuragarri jarriko ditu telefonoak, ekipamendu informatikoak eta altzari egokiak izango dituzten lokalak; lokal horiek Mankomunitateko bulegoetan kokatuta egongo dira.

Koordinazio lanak Mankomunitateko zerbitzuaren arduradunak egingo ditu, enpresak horretarako izendatutako profesionalarekin batera.

9 . - ERAKUNDE ADJUDIKAZIODUNAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Enpresa adjudikaziodunaren eskubideak dira hauek:
- Itundutako prezioa hilabete bakoitzaren amaieran kobratzeko eskubidea, bidezko faktura aurkeztu ondoren.
- Beharrezko laguntza jasotzeko eskubidea, kontratuaren helburu diren zerbitzuak betetzeko.
- Lana gauzatzeko ekipamendua duen lokala eta bitarteko materialak izateko eskubidea, Mankomunitatearen irizpidearekin bat eginez.

Erakunde adjudikaziodunak honako betebeharrak izango ditu:
- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Esku-hartze psikologiko, sozial eta hezkuntzako programa garatzea, Haurtzaroa eta familia Arloaren zuzentarauekin bat eginez.
- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ez du zerbitzua emateko langilerik gehituko.
- Zerbitzua erregulartasunez eta etengabe garatuko du, hitzartutako prezioarekin bat eginez, istripu, gaixotasun, opor edo beste arrazoi batzuen ondorioz zerbitzuari atxikitako lantaldean sortzen diren bajak bete beharko dituelarik kontratua indarrean dagoen bitartean. Ezin izango dio inolaz ere zerbitzua emateari utzi, kontratazio organoak interes publikoko arrazoi justifikatu batengatik horrela erabaki ezean.
- Mankomunitateari jakinarazi beharko dizkio lantaldekoen inguruko gorabehera guztiak.
- Langileen bajak hamabost eguneko gehieneko epean bete beharko dira, baja gertatzen den egunetik zenbatzen hasita. Betebehar hori ez betetzeak hileko fakturan zerbitzuaren kostuaren kenketa proportzionala egitea ekarriko du, kontratua deuseztatzeko arrazoia izan daitekeelarik.
- Mankomunitateak beren-beregi baimendu beharko du langileak ordeztea, eta langile berriek kontratatzeko eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko da.
- Zerbitzuan normalean atxikitako langileak ordeztekotan, kontratatutako langile berriek ordeztutako langileek jasotzen zuten ordainsari berdina jaso beharko dute, pertsonalak diren ordainketa osagarriak (adibidez, antzinatasuna) kenduta.

- Erakunde adjudikaziodunak langileei etengabe informazioa eman beharko die. Era berean, langileek, aurretiaz Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari jakinarazita eta horrek baimena eman ondoren, ikastaroetan, foroetan eta jardueretan parte hartu ahal izango dute, beraien lanarekin zerikusia dutenak, eta lanaldi barruan. Enpresak eta Mankomunitateak hitzartuko dute urtean aurreko jarduerari zuzendutako ordu kopurua zein izango den.
- Haurtzaroa eta Familia Arloari informazioa eman beharko dio eskatutako programaren garapenaren inguruan: memoriak, erabiltzaileen zerrenda, hezkuntza proiektuak, adingabeei buruzko txostenak, familiak, jarduerak, etab.
- Zerbitzua ematean lortutako emaitzen gaineko txostena bidaltzea Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari. Dena dela, toki administrazioak beti edukiko du ikuskaritza egiteko ahalmena. Era berean, estatistika, laguntza eta kudeaketa kontabilitatearen gaineko datuak eman beharko ditu, Mankomunitateak zerbitzuaren onuradunei emandako laguntzaren kalitatea aztertu ahal izateko.
- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean emandako zerbitzuari buruzko urteko memoria bat aurkeztu beharko da ekitaldia bukatu eta bi hilabeteko epean.
- Kontratu hau arautzen duten Administrazio Klausula Berezien eta Klausula Teknikoen Pleguan bildutako betebehar guztiak zorrotz beteko ditu.
- Enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu lanaren, fiskalitatearen, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren, higienearen eta laneko arriskuen prebentzioaren arloetan indarrean dauden legezko xedapenak, bereziki Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legea betetzen dela zainduko duelarik. Horiek betetzen ez badira, Mankomunitateak ez du erantzukizunik izango.
- Zerbitzuari atxikitako langileak Bizkaiko sektorearen eskualde hitzarmenaren barne egongo dira.
- Enpresa adjudikazioduneko langileak inolaz ere ezingo dira Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lan kontratupeko langile edo funtzionariotzat hartu.

10. BUSTURIALDEKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Hauek dira Mankomunitatearen eskubideak.

- Mankomunitateak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoko benetako eta arrazoizko beharrizanengatik, plegu hauetan aurreikusitakoari jarraiki eta berton eta indarrean dagoen legerian adierazitako ondorioekin, betekizunak betez eta mugen barruan. Horrek, horrenbestez, ez die inolako kalterik eragingo zuzenbidearen arabera administrazioak bete beharko dituen balorazio metodoei, kalte-ordainei eta ordaintzeko beharrei.
- Edonola be, beharrezko aldaketak edo Mankomunitateak erabakitakoak aplikatzeko, plegu hauetan xedatutakoari eta indarrean dagoen legeriak zehaztutakoari jarraituko zaio. Erakunde adjudikaziodunak ez du eskubiderik izango bere ekimenez egin diren berrikuntza edo hobekuntzengatik ordainketa edo kalte-ordainik jasotzeko, toki administrazioaren onerako izan arren, ez eta Baldintza Fakultatiboen Pleguan zehaztu ez diren beste behar batzuk egiteagatik ere, toki administrazioak aurretiaz idatzizko jakinarazpenaren bitartez agindu ez baditu.
- Mankomunitateak eman beharreko zerbitzu batzuk kentzeko aukera izango du.
- Mankomunitateak berak zerbitzuko langile bat ordezkatzeko proposatu edo programa aldatu ahal izango du, hori egitea aholkatzen duten inguruabarrak gertatzen baldin badira.
- Oro har, indarrean dagoen legeriak kontratatzen duen administrazioari ematen dizkion eskubide guztiak erabiltzea, emandako zerbitzua ikuskatu eta zaintzeko asmoz, enpresa adjudikaziodunarekin egindako kontratuaren arabera.

Mankomunitateak honakoak egin beharko ditu

- Hitzartutako prezioa ordaintzea erakunde adjudikaziodunari, faktura aurkeztu ostean, baldintzen pleguan adierazitako baldintzak azalduz.
- Hitzartutako zerbitzuaren aldaketa kuantitatibo edo kualitatiboen gaineko erabakiak jakinaraztea erakunde adjudikaziodunari.
- Beharrezko laguntza eskaintzea erakunde adjudikaziodunari, kontratuaren xede diren zerbitzuak betetzeko.

I ERANSKINA: Subrogatu beharreko langileen zerrenda / ANEXO I: Listado del personal a subrogar								
NAN/DNI	**Antzinatasuna/ Antigüedad**	**Kategoria/Categoria**	**Jardunaldia/ Jornada**	**Kontratu mota/ Tipo Contrato**	**Kontratuaren amaiera/Fecha fin contrato**	**Soldata gordina/ Bruto año**	**Aplikatu beharreko hitzarmena/ Convenio aplicación**	**Oharrak /Observaciones**
***5312**	05/02/1990	**Hezitzailea /koordinatzailea** Educadora/ Coordinadora	100%	**Sozietate langile mugagabea/** Societario indefinido	**Mugagabea/** Indefinido	38.052,00 €	**Barne erregimeneko erreglamentua/** Reglamento de Régimen Interno	
***1419**	25/02/2008	**Gizarte hezitzailea** Educador Social	100%	**Sozietate langile mugagabea/** Societario indefinido	**Mugagabea/** Indefinido	32.429,88 €	**Barne erregimeneko erreglamentua/** Reglamento de Régimen Interno	**Amatasunagatik 1/3ko murrizketa** / Reducción por conciliación de 1/3. Maternidad
***5355**	02/05/1997	**Psikologoa/ hezitzailea** Psicólogo/Educador	100%	**Sozietate langile mugagabea/** Societario indefinido	**Mugagabea/** Indefinido	35.713,30 €	**Barne erregimeneko erreglamentua/** Reglamento de Régimen Interno	
***9695**	01/02/2012	**Gizarte hezitzailea** Educador Social	100%	**Sozietate langile mugagabea/** Societario indefinido	**Mugagabea/** Indefinido	32.112,36 €	**Barne erregimeneko erreglamentua/** Reglamento de Régimen Interno	
***6792**	14/05/2008	**Psikologoa**/ Psicóloga	100%	**Sozietate langile mugagabea/** Societario indefinido	**Mugagabea/** Indefinido	38.202,92 €	**Barne erregimeneko erreglamentua/** Reglamento de Régimen Interno	
***5100**	28/10/2019	**Gizarte hezitzailea** Educadora Social	100%	**Interinitatea/** Interinidad	**Interinitatea bukatu arte**/ Fin interinidad	28.104,65 €	**Bizkaiko Gizarte esku-hartzekoa** /Intervención Social de Bizkaia	**Amatasuneko murrizketa betetzen**/ Cubre maternidad